


Araba euskaraz Olarizu



Noticias de Aroa
Diario
Arabako DNarekin

↳ Gehigarria:
Eunate Fernández

📧 Argazkiak: Pilar Barco, Alex Larretxi, Josu Chavarri, Jorge Muñoz, NTM, Pablo José Pérez, utzitakoa (Eh Mertxe' taldearena, Ekaitz Andu), Noticias Taldeko artxibokoak



Aurten Araba Euskaraz ekimenaren edizio berritik lortzen den dirua San Bizente Ikastolara bideratuko da; zuzendariak xehetasunak azaldu ditu

GASTEIZ – San Bizente ikastolako zuzendaria den Arturo López de la Callek edizioaren xehetasunak azaldu ditu elkarrizketa honetan. Araba Euskaraz euskararen aldeko jaiak da eta euskararen erabileran eta ezagutzan borrokatzen jarraitzea da ekimen honen helburua. Baina zein da ba, euskararen etorkizuna? San Bizente ikastolako zuzendaria- rentzat, "gure gogoa, borondatea eta grina ere mugaezinak dira. Due-

la berrogeita hamar urte, guraso, irakasle eta ikasle aitzindariak abiatutako ikastola mugimendua guztiz errota dago Arabar Errioxan. Urteotan guztian lortu dugu eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak %4 izatetik, %40tik gora izatea. Eta gure gogo, borondate eta grina mugaezinezkin lortuko dugu Arabar Errioxa euskalduna, Euskal Herri euskaldunean. Bestalde, San Bizente Ikastola gurasoen kooperatiba da. Boluntarioki erakunde demokratiko bat eratu duten pertsonen elkarte autonomo bat, kalitatezko zerbitzu bat bermatzen duen administrazio eta kudeaketa garden batekin. San Bizente Ikastola, 0 eta 16 urte bitarteko ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza eskaintzea lehentasuna

www.escolapias.org (donación) 945242947

Education se escribe con **E**scolapias

the future

Colegio Paula Montal ikastetxea

duen ikastetxea da. Kooperatiba honen helburua bazkideen seme-alaben eta senideen irakaskuntza eta hezkuntza sustatzea eta horri arreta ematea da, euskaraz, udalerriko eta eskualdeko beharren arabera mailatan eta modalitateetan. Horretarako, erakunde eta elkarte publiko eta pribatuekin batera lan egingo du.

Nola izan da edizio hau antolatzea?

–Aurten, aurreko bi edizioetan bezala, Arabako zortzi ikastolen artean antolatu dugu. Ibilbide luzea izan da, hainbat jarduera, ekitaldi eta kontzertuekin. Ilusioz egindako lana izan da, guztion artean, auzolanean. Zortzi ikastolatan sortu ditugu batzordeak eta lanak banatu ditugu: material salmenta, Tanta txartelen salmenta, babesle-laguntzaileen eta publizitatearen bilaketa, segurtasun aurreikuspen lanak, urte osoko elimenen antolaketa, eguneko egitarauaren taxuketa, muntaketa lanen aurreikuspena,... Lan asko dira elkarlanean kudeatu beharrekoak. Lan horiek guztiak, bistan da,



samurrago egiten dira ikastola guztiok batuta, eta denon artean koordinatuta. Gure ikastolako familia guztiak parte hartu dute.

Gure herrian ere, MUGAEZIN jaialdia antolatu dugu, Oiongo familia, ikasle eta biztanle guztiarentzat. Egun polita izan zen, musikarekin, herri bazkariarekin eta Eh Mertzxe taldearen kontzertuarekin.

Zer izan da zailena?

–Nire ustez, zailena iristear dago. Elkainaren 16an izango dugun erronka ez da txikia, Araba Euskaraz eguna. Egun horretarako detalle txiki asko lotu behar dira eta antolakuntza ez da erraza. Baina dena dago prest, dena behar den moduan antolatu dugu eta orain bakarrik behar dugu jendearen partaidetza eta eguraldi on bat izatea.

Zertan erabiliko duzue bildutako dirua?

–2015ean ospatu genuen Araba Euskarazeko diruarekin, gaur dugun jantokiaren obraren zati bat ordaindu genuen. Oraingo honetan, obra hartan egindako inbertsioa ordaintzen amaitu nahi dugu. Ikastolan jantoki bat izatea aurrerapauso handia izan da gure ikasle eta familientzat.

Zer helarazi nahi duzue aurten-go leloarekin?

–Mugarik gabe, ez bada ortzi-muga, mugarriz mugarri, euskararentzako espazio zabalagok ireldiz. Mugarik gabe, euskaraz hezi eta hazi nahi duten guztiarentzat. Euskal Herriko

hegomendebaldean gaudela, mugan, baina euskaraz bizi nahi dugula, euskaraz lan egin nahi dugula eta gure seme-alabak euskaraz hezi nahi ditugula. Hegomendebaldeko bazterretik ari gara, bazter-herritik, euskarazko hatsa igorritz erdigunera. Baina erdigunean ere bagaude, eta indar zentripetua eragiten dugu, nafarrak eta errioxarrak, baita etorri berriak ere erakarriz gureru.

Zein da ospakizun honen helburu nagusia?

–Ikastolen proiektuak ezagutaraztea eta bultzatzea. Baina, era berean, euskarari eta euskal kulturari agertoki handi bat eskaini nahi diegu.

Ikastolek bezalaxe, euskarak behar duelako Araba Euskarazaren bozgorailua; euskal kulturak behar duelako Araba Euskarazaren agertokia; eta arabarrok ere behar dugulako Araba Euskarazaren topagunea. Nola indartzen duzuen ikastola honetatik euskararen erabilera eta ezagutza?

–Euskara maite dugu, eta horrela transmititzen diegu gure ikasleei. Oiongo herrira ateratzen dugu gure proiektua, konpartitzen dugu eta zabaltzen dugu. Motibazioak garrantzi handia du. Euskal hizkuntza eta kultura zaintzen salatzen gara. Euskaraz hitz egiteak eta euskaraz ikasteak bereizten gaitu.

Nahi dugulako, gure familiek horrela erabaki dutelako.

Zein da euskararen etorkidzuna, zure ustez? Indarra hartuko duela uste duzu?

–Gure gogoia, borondatea eta grina ere mugaezina dira. Duela berrogeita hamar urte, guraso, irakasle eta ikasle aitzindariak abiatutako ikastola mugimendua guztiz errota dago Arabar Errioxan. Urteotan guztian lortu dugu eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak %4 izatetik, %40tik gora izatea. Eta gure gogoia, borondatea eta grina mugaezina ere lortuko dugu Arabar Errioxa euskalduna, Euskal Herri euskaldunean. ●

- Laborala
- Juridikoa
- Kontablea
- Gizarte balia bideak

DELABOR
A S E S O R I A
desde 1977az gero

- gure lana zu aholkatzea da!
- gure lana zu laguntzea da!
- gure lana zutaz arduratzea da!

AHOLKULARITZA INTEGRALA ENPRESEN KUDEAKETAN

San Bizente Ikastola, Kooperatiba izenarekin, Oionen gurasoen irakaskuntza kooperatiba eratu da. Euskadiko Kooperatibei buruz Eusko Legebiltzarak onetsitako Legearen printzipioen eta xedapenen arabera.

Kooperatiba honen helburua bazkideen seme-alaben eta senideen irakaskuntza eta hezkuntza sustatzea eta horri arreta ematea da, euskaraz, udalerriko eta eskualdeko beharren arabera mailetan eta modalitateetan. Horretarako, erakunde eta elkarte publiko eta pribatuak batera lan egingo du. 1976.ko Gabonetan bere herriko eta aberriko kulturaz arduratutako guraso talde bat galdutako sustraien berreskurapenaren beharra ikusirik bildu egin zen, bertatik gaur egungo ikastola sortu zelarik.

"Oztopoak eta eragozpenak egon bazueden baina ihardutenaren poderioz lortu zen gaur egun erabat finkaturik dagoena. 1977.ko urtarriean 11 ikasle besterik ez zuden, bost urte geroago 56, 1987.ean, 135era iritsi direlarik. Egun matrikulazio zein onarpen portzentajea goraka doa baina herriko bertakoen umeak eta inguruetako umeen artean: Kripa, Ekora, Moreta, Labraza, Biana, Logroño. Honelkin batera, Errioxara joan beharra izan duten guraso hauei ere bere seme-alaben euskal hezkuntza eskaini eta ziurtatzen diegu", kontatzen dute bertatik. Hasiarako andereño desinteresatuak, hauen artean, Arantxa, Paldia, Ana, Maitane, eginiko lanak bere fruituak eman zituen eta 1987-1988 ikasturtean O.H.Oko lehenengo taldea atara zen. Orain ldustroak 19 irakasle osatzen du eta guztia 256 ikasle dauka. Euskal kulturari lotzen zaizkion ekintzak egiten dituen irakasle bat ere hor dabil, honako hau Arabar Errioxako beste ikastolatan barne zabaltzen duelarik "horrek suposatzen duen esfortzu eta eguneroko lana kontutan harturik".

"Harrotasunez begiratu dezakegu haur haiek, lonja kaskar batean hasi zirenak, gaur egun haur horiek, andre-gizonak eginda, ingeniari, zinta, ingeles filologia, magistergoa edo



San Bizente ikastolak historia luzea du atzean; irudi honek hamabi urte baino gehiago ditu bere historia kontatzeko.

San Bizente ikastolaren historia

SAN BIZENTE IKASTOLA, KOOPERATIBA IZENAREKIN, OIONEN GURASOEN IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ERATU DA

marketin ikasketak burutua dute". Publikoa izateko bokazioa dauka, heziketarako eskubidea berdintasunean bete zedin; baina 1994ko maiatzaren 24an Euskal Eskola Publikoa-

ren Legea agertu zenean, sare pribatuaren geratzea erabaki zuen, ikastolaren helburuetarako egokidago ikusi zuelako. "Hala ere, aukera komenigarriago baten zain gaude,

euskal eskola publikoa izan nahi baitugu, zalantza izpirik gabe". LOGSE sistema hedatuz zihoan neurrian goiko mailak desagertuz joan ziren, beraz, eta behetik, 2 urteetatik hasi-

ta, zetozen haurren taldeekin Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza indarrean jartziz joan ziren.

San Bizente Ikastola sortu zenetik, nortasun izaera propioa izan du, batez ere, "bere hezkuntza eredu propioa nahi izan zuelako garai horretan, gure baloreetan eta euskararen oinarritutako hezkuntza eredu, hain zuzen".

"Dagoeneko 28 urte luze pasa dira lehenengo urratsak eman zirenetik eta orduan Arabako Errioxan bizi zen errealtatea ez da gaur egungoa. Oiongo proiektu gisa sortu zena, Araba Errioxako proiektua bilakatu da, D eredua eskaintzen duen Bigarren Hezkuntzako ikastola sortuz", ondorioztatzen dute San Bizente Ikastolatik. ●

Olarizu, ekainak 16

araba euskaraz
mugaiez



ikastolenkartea

KOOPERATIBOK BIDEA URRATZEN ARI GARA ARABAN EUSKARAZ


MONDRAGONeko kooperatibok bidea urratzen ari gara euskal kultura, ohiturak eta hezkuntza babesten.

Orain ere Arabako ikastolen jaiarekin bat egiten dugu.

Mugaezin Araban euskaraz!



www.mondragon-corporation.com/eu

MONDRAGON	 GIZATASUNA LANEAN	Finantzak Industria Banaketa Ezagutza
-----------	---	--

araba euskaraz

11:00 - Arabako ikastola eta ikastetxeak
 11:00 - Arabako ikastola eta ikastetxeak
 11:00 - Arabako ikastola eta ikastetxeak
 11:00 - Arabako ikastola eta ikastetxeak
 11:00 - Arabako ikastola eta ikastetxeak
 11:00 - Arabako ikastola eta ikastetxeak



ERBONKA
 11:00-14:00
 LH
 Mendia gunean
 DBH
 Gune guztietan

ARTE ESZENIKOAK
 Armentia ikastola
GOIAZEN KARAOKEA
MUGAEZIN TXOUA!
 Arabako ikastoletako ikastetxeak
DANTZA PLAZA
ZUNBA

araba álava
 foru aldundia diputación foral



berria

BERRIAREN TXOKOA
ARGITXOREN TXOKOA



EROSKI ELIKADURA TAILERRA
MAKUSI GUNEA



Ibilbidearen antolakuntza

FESTA HONETARAKO PROGRAMAZIO ANTOLATUA ZABALA ETA ASKOTARIKOA DA GUSTU GUZTIETARAKO

Araba urteko festarik jendetsuenetako bat jasotzeko prestatu da hilabetez. Araba Euskaraz 2024ko edizioa heldu da aktibitatez eta herritarrei gozamina eskaintzeko gogoz beteta.

Izan ere, Olarizuko zelaian euskararen presentziari eta garrantziari balioa emango zaio beste edizio berri batean. Leloak berak adierazten duen bezala, Mugaezin, "mugarik gabeko" euskara. Ekitaldia Ola-

rizuko parkean izango da aurten ere. Topagunea goizeko hamarretan izango da, Olarizuko etxaldearen ondoan dagoen landare auditoriumean. Hortik aurrera, nahi dutenek gune ezberdinetera joan ahal

izango dute, egun honen helburu nagusia ahaztu gabe: "Euskaraz eta euskal kulturaz gozatzea".
 Jai hori egun osoan luzatuko da eta, gainera, hiru jarduera eta mugimendu eremu izango ditu. Hiru ere-

mu garrantzitsu izango ditu: Lehen eremua: *Lautada*. Bigarren eremua, *Mendia*. Eta azken eremua, *Erreka* izenekoa. Programazioan agertzen den bezala, lehen eremuan, Armentia ikastolaren eskutik, *Goi azen*,

INSTITUTO "CIUDAD JARDÍN" INSTITUTUA
 GOI ETA ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
 CICLOS FORMATIVOS DE GRADO MEDIO Y SUPERIOR
 Ereduak/Modelos: A, B, D - Multilingüe


- > Merkataritza eta Marketina
- > Administrazioa eta Kudeaketa
- > Informatika eta komunikazioak

Etorkizunera hurbiltzen
Acercándonos al futuro

C/ Álava 39 - Vitoria-Gasteiz 945 233 714 www.iejardin.net

araba euskaraz


Olarizun ere,
 garena zabaltzen!



2.
menidia
gunea

- 11:00 **DANTZA MUGAEZIN!**
Euskal dantzen topaketa
- 12:30 **BERTSOTAN!** Arabako Bertsozale Elkartea
- 14:00 **MIROTZ** (Gazte Talent)
- 15:30 **EH, MERTXE!**
- 17:00 **AKERBELTZ**



Tallerrak eta jolasak:
11:00 - 14:00 **HAURREN BASOA**
11:00 - 15:00 **ABESTU, DANTZATU**
ETA SORTU KAIKUREKIN



3.
erreka
gunea

- 11:30 **MARIAARANDIA**
"Magia eta mirariak familian"
(Berriaren eskutik)
- 13:00 **IBIL BEDI**
- 14:30 **JANUS LESTER**
- 16:00 **BURUTIK**
- 17:30 **DJ MALANDRO**

Tallerrak eta jolasak:
11:00 - 14:00 **HAZTEN ETA JOLASTEN**
Araba Euskaraz murala eta puttserak
Egun osoan zehar:
EUSKALTEL KUKAÑA BIZIKLETAZ
PUZGARRIAK



Mugaezin Txoua! -en karaokea, Arabako ikastoletako ikasleek antolatua, plaza-dantzak eta Zumba izango dira gunee honetan. Era berean, taller eta jolasei dagokionez, Berriaren Txokoa, Argitxoren Txokoa, Eroški Elikadura Tailerra eta Makusi gunea egongo dira.

Bigarren eremuan, euskal dantzak izango dira. Dantza mugaezin. Horrez gain, Arabako Bertsolari Elkarteak Bertsotan saioa egingo du. Mirotz, Akerbeltz eta Eh, Mertxe!, aurtengo Araba Euskaraz abestiaren konpositore taldearen kontzertuak ere izango dira. Era berean, tailerrak eta jolasak izango dira: Haur Basoa eta Kaikuren Abestu, Dantza eta Sortu tailerra.

Erreka gunean Maria Arandiaren Magia eta mirariak familian ikuskizuna eta Ibil Bedi, Janus Lester, Burutik eta Iñaki Kerejazu Zeledon berriaren izen artistikoa den DJ Malandroren kontzertuak izango dira. Horrez gain, bizikleta kukaña eta Euskaltelen puzgarriak ere egongo dira.

Gainera, egunean zehar, Gasteiz Kantuz, Arai erraldioen konpartsa

Araba Euskaraz 2024ren edizio berria Gasteizko Olarizuko zelaietan egingo da aurten ere arabar guztiak bafuz


eta Ait Maresmeko Castellars-ak ari tuko dira gaite-gune ezberdinetan. Bestalde, lurraldeko ikastoletako ikasleek "erronka hartuko dute Erronkako probetan"; zehazki, Lehen Hezkuntzako ikasleak Mendia arloan egongo dira, eta DBHkoak, berriz, gune guztietan. Olarizutik kanpo, Adurtzako pilotalekuan, Arabako herri arteko pilota txapelketako finalak jokatuko dira.

"Gure asmoa da Araba Euskaraz egun zoriotsua eta alaia izatea, eta, aldi berean, ahalik eta erosoena izate

gurekin batera Arabako ikastolen jaia ospatzera joaten diren guztientzat", nabarmendu du Arturo Lopez de Lacallek, Oiongo zentroko zuzendariak. Gainera, antolatzaileek bertara joateko garraio publikoa erabiltzea eskatu dute, autobusentzako aparkalekua Olarizu etorbidean egongo baita. Hala ere, Ansoleta eta Uritiasolo industrialdeak egokituko dira autoak aparkatzeko. Azken ohar gisa, edalontziak ebtezik ekarri edo, bestela, txosnetan zerbitzatzen direnak erabiltzea gomendatzen dute.

araba euskaraz mugaezin

Badator... araba euskaraz!



Halluetan oinarritutako hezkuntza ere irakasten da - La enseñanza en valores es algo que también se enseña

IKASTETIK HARAGO

Roberto Gonzalez
 Araba Euskarazeko koordinatzaileak edizio berri hau nola antolatatu duten azaldu du eta bertako xehetasunak kontatu ditu

Zer moduz Araba Euskaraz elditaldiaren edizio berri honen antolakuntzan?

-Oso ondo aritu gara Arabako zortzi ikastolen artean antolatzen. Auzolanean oinarritutako proiektua da gurea, eta denen artean lan egiten denean emaitza polita izaten da. Gure jaiak zortzi ikastolok elkarrekin antolatzen hasi ginenetik erabaki genuen Araba Euskaraz urte osoko prozesua izango zela; ekaineko jaiak amaiera ematen dio urteari, hain zuzen ere. Horrekin batera, Araba Euskaraz urtero Araba osora hedatuko gurela esan genuen. Eta aurten ere hala izan da.

Zeintzuk izango dira edizio honetako berrikuntzak?

-Azkeneko bi urteko dinamika berdinarekin jarraitu dugu aurten, aurreko bi urtetan martxan jarritako erudia hobetzen saiatu gara. Urte osorako programazioa planteatu dugu eta ekainaren 16an bukaera emango diegu Arabako ikastolen jaiarekin.

Urtez urte jendearen partaidetza, berdina izaten da?

-Urtean zehar antolatzen ditugun ekintzetara geroz eta jende gehiago batzen ari da eta Araba Euskaraz jaiak euskaltzale ugariaren topagunea izan da beti.

Nola antolatzen zarete ikastola guztien artean edizioa aurrera eramateko?

-Auzolanean oinarritutako proiektua da gurea eta lan guztia bideratzeko ikastoletan lantaldeak sortzen dira. Nire lana lantalde horien koordinazioa egitea da. Araba Euskaraz ez da jai egun bakar bat, urte osoan zehar jarduerak antolatzen dira eta denen artean aurrera ateratzen ditugu.

Zein elimen egin dituzue euskararen erabilera indartzeko?

-Ekainaren 16ko jaiaren aurretik, hainbat ikuskizun, kontzertu eta jaialdi antolatatu ditugu. Urriaren 27an abiatu genuen 2024ko Araba Euskaraz

urteko, Oionen egin genuen aurkezpen jaiarekin. Abenduaren 4 eta 5ean, **berriz**, Gazte Talent lehiaketaren finalean parte hartu genuen, Gasteizen. Urtaurilaren 14an, Golazen 10

kontzertua antolatatu genuen Gasteizen, eta otsailaren 25ean, Araba Euskaraz Euskal Pilota Topaketa, Oionen. Oionen bertan Porrotx eta Marimotots izan genituen martxoaren 6an. Lau egun geroago, Beskoitzera Joan ginen. Lapurdira, ikastolen jai guztioi ikastolak Herriari ekimenaren baitan, antolatutako Non eta Mugan elditaldira. Apirilaren 10ean Araba Euskaraz abestiaren aurkezpen kontzertua ospatu genuen Gasteizen, EHUren kanpusean. Apirilaren 13tik 26ra bitartean, **berriz**, Araba Euskaraz

Masters Series zesta punta txapelketa izan genuen. Maiatzean, bi ikuskizun antolatatu ditugu: Mugaezin jaialdia, Oionen, eta Golazen 10 kontzertua, Amurriion. Urte oparoa izan dugu. Eta guzti hau aurrera atera dugu, ikastolen arteko komunitateari esker, elkarlanari eta auzolanari esker, bai eta beste elkarte eta erakunde batzuekin egindako lanari esker, eta horiek aurrera ateratzeko babes ekonomikoa eman diguten erakunde eta enpresei esker.

Zeintzuk falta dira egiteko?

-Oraindik asko dago egiteko euskararen erabilera indartzeko. Guk adibidez, ikastolen proiektuak ezagutarazi eta bultzatu nahi ditugu Araba Euskaraz egitasmoarekin. Baina, euskararen erabilpena bultzatzeko era berean, euskarari eta euskal kulturari agertoki handi bat eskaini nahi diegu. Ikastolek bezalaxe, euskarak behar duelako Araba Euskaraz bostgorailua; euskal kulturak behar duelako Araba Euskaraz agertokia; eta

arabarrok ere behar dugulako Araba Euskaraz topagunea.

Bakoitzak bere proiektutik asko du emateko.

Zein da euskararen erabilerearen egoera?

-Arabaren ezagutza altua da, baina ematen duenez erabilpenarekin ez dator bat. Nola orekatu dezakegu ezagutzaren eta erabilerearen arteko alde hori?

-Ohiturak aldatzearen kontua da, euskaraz bizitzera jauzia egin behar da. Gure lurraldean Euskararen erabilpena areagotzea izan beharko luke Araba euskalgintzako eragile guztien erronka.

Zein da ikastolen eginkizuna?

-Ikastoletatik euskararen ezagutza eta erabilera sustatzen aritu gara betida-

nik eta etorkizunean ere horrela izango da. Euskaraz bizi, hezi eta hazi nahi duten ikasleak ditugu ikastoletan.




Gizartearen euskararen erabilera behera egin du, ikasleen artean ere

bai. Herri apustua da joera hori iraultzea, eta Hezkuntzatik ere aurrera egin behar diegu. Ikastolok gure Hizkuntza Proiektua berritu eta biziberritu dugu, Hizkuntzen Tratatua Integralean sakondu dugu, eta hezkuntza formalarren eta ez formalarren arteko hormak

bota ditugu. Pulunpa emozioen programa edo orain pilotatzen ari garen Arikala ditugu adibidez; emozioen bitartez, alsiaren eta jolasaren bitartez, ikasleak euskaraz murgiltzeko bide berriak jorratzen ari gara. ●

AMAFER

Especialistas en diseño y funcionalidad



Comienza el día cuidando tu cuerpo

Armarios que organizan tu día a día

Siente el placer de cocinar

Bitorialanda, 8 - pab. 17 Vitoria-Gasteiz
 945 241 518 info@amafercocinas.com
 www.amafercocinas.com



VITORIA
GASTEIZ
green capital

GAZTE SORTZAILEAK 2024

SORTUTAKO EKIMENAK EUSKARAZ

CREACIONES EN EUSKERA PARA JÓVENES

EPEA

Uztailak 15

**GAZTEOK
GAZTEONTZAT**

NORENTZAT SARIA

16-35 urte
bitarteko arabarrak

4000€ra artekoa
& aholkularitza profesionala



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Ibai Landa

ARABA EUSKARAZ 2024 MUGAEZIN (EH, MERTXE) TALDEKO KIDEA

“Abesti honen oinarriak dira mugak gainditzea; euskara ikasi izanaren harrotasuna”

Ibai Landak Araba Euskaraz-en edizio berriari erritimoa jarri dion abestia nola sortu den azaldu du elkarrizketa honetan; Eh Mertxe taldeko kidea da

GASTEIZ—EH, Mertxe! rock taldeak jarri dio doinua abestiari. Ibai Landa bera da taldeko kideetako bat. Besteak dira: Adrian Cabañas, Iosu Martínez eta Ivan Aranbarri. Guztiak ikasleetako kide ohiak. Rock-and-roll banda zitela da EH, Mertxe! kementsua, gitara zorrotzekin eta doinu melodiko eta infekzioelkin, bulkada basatien eritmorra dantza eta oihu egitera bultzatzen duena. Agertoki gainean indarra eta sinpatia transmititzen dituen taldea da, eta 2015etik dabil oholtza gainean. Ibai Landa Oiongo herritarra dugu, San Bizente Ikastolako ikasle ohi eta gaur egun bertako irakaslea. Kontzertuak ikustera joatea eta kontzertuak ematea izaten da bere asteburueta-ko lana EH, Mertxe! rock 'n' roll taldearekin. Hala, Araba Euskaraz ekimenaren antolatzaileek azaldu zuten, “Rock-and-roll musika energiko eta dantzagarria proposatu digute ‘Mugaezin’ abestiarekin. Osatu dugun bideo klippean San Bizente ikastolako komunitate guztia jarri dute dantzan. Izan ere, auzolanean ekoiztu dugu bideo kliba: ikasleek, irakasleek, gurasoek, San Bizente ikastolaren sortzaile eta lagunek parte hartu dute”. Lander Etxedonak zuzendu du bideo klibaren errealizazioa. Lander ere ikastolako ikasle ohi da. “Abestiarekin, eta abestia oinarri hartuta osatu dugun dantzarekin, euskarak ez duela mugarik adierazi nahi izan

dugu. Harresiak hautsi genizkiola, hemen euskararen periferian; eta periferiatik erdigunera ere eramaten dugula euskara. Letrek azaltzen dute ekitaldi honetarako Araba Euskarazek hedatu nahi duen mezua. Batetik aniztasuna islatzen du, horrelakoa baita Oiongo San Bizente Ikastola: jatorri ezberdineko kide osaturiko komunitate bat, herri eta herrialde ezberdinetatik iritsi eta guztiak ikastolan elkartzen diren kide osaturiko komunitatea. Bestetik, Arabako ikastolok bat egin dugula ere esaten du abestiak. Guztiok elkarrekin hirugarren urtez jarraian antolatzen dugun Araba Euskaraz baitugu aurtengoa”, azpimarratu dute taldeak. Nola sortu da abesti hau sortzeko ideia?

—Adrian eta biok San Bizente Ikastolako ikasle ohiak gara eta aurtengo abestia egitearen proposamena iritsi zitzaigun. Erantzuna ematea ez zen erraza izan. Balantzan honek suposatzen zuen presioa eta egiteko guren ilusioa jarri gertuena eta bigarrenak irabazi zuten. Gaur egun esan dezakegu ondo erabaki genuela, prozesuan asko ikasi dugu eta emaitzarekin pozik gaude.

Zer da transmititu nahi duena?
—Oiongo herriko ikastolak 3 komunitateetako ikasleak jasotzen ditu, Errioxakoak, Nafarroakoak eta Arabakoak. Ikastolak mugak gainditzen dituzte gure hizkuntzak hesi guztiak hausten dituen moduan. Abestiak ahalmen hau erakutsi nahi du.

Erritmo handiko abestia da euskaldun guztiok martxan eta energiaz betetzeko.

—Mugimendu askea eta etengabea plasmatu nahi genuen eritimo azkar eta dantzagarria medio dela,



“Mugimendu askea eta etengabea plasmatu nahi genuen eritimo azkar eta dantzagarria medio dela”

dantza ere badelako hizkuntza unibertuala.

Zein da abesti honen oinarria?
—Abesti honen oinarriak dira mugak gainditzea, mahasti artean duela 45 urte jaiotako ikastola, euskarak duen mugimendua eta eskualdean euskara ikasi izanaren harrotasuna.

Harresiak hautsi ditugu euskararen alde?

—Bai, eta horrela jarraitu behar du. Hizkuntza batek ezin du mugarik izan eta askatasun osoa behar du garatzen jarraitu ahal izateko.

Zer izan da abesti eta bideo hau sortzerakoan zailtasun handienak?

—Zailena jende guztia dinamizatzea izan da. Bideoa auzolanean egin zen eta bakoitzaren ordutegiak errespetatzeko “puzlea” antolatzeak lana eman zigun. Hala ere, Lander Etxedonaren gidaritzapean auzolanak duen magia exprimitzeko aukera izan genuen. Eta gustokoena?

—Taldea duela 10 urte sortu genuen laguneren artean eta hauekin bizipen

izugarri politik bizitzten ari gara. Elkar Estudioetan abestia grabatzea abestiaren prozesuaren momentu aberatsenetarikoa izan zen. Bestalde, abestia sortzeko askatasuna izan genuen, bai musikalari eta bai letra aldetik. Honek mezu propio bat idazteko aukera eman digu gure musikak lagunduta. Arabako Errioxako lau lagun gara, musikaren inguruko bizimoduak da gurea eta gure herriko umeen aurpegiak ikusteak eta haien ahotsak abesten entzuteak argi utzi digu proiektu honetan partehartzea ideia bikaina izan zela. Igandera arte, izan dadila mugaezin Araban euskara. ●



-Arnasgunea Arabako Errioxan
Gure hizkuntzaren hesiak bota zituena
Ebro ibaiaren ertzean bere atea
45 urtez irekia

Zortzien lankidetzat beharrezko energia
ikastolen magia gure mingainak dantzan jartzea

MUGAEZIN ARABAN EUSKARA
MUGIMENDU ETENGABEAN
MAHASTI ARTEAN JAIOTAKO EKILOREAK
OIONEN DU BERE ETXEA

Mugagabea herriko ikastola
Izaeraz hautsiz zailea izan dena
Bere ikasleak izandako ume bezala
Euskaraz abestearen motiboa

Eskualdeko birika biziak
Norfasunean harrotasunez jantzia

MUGAEZIN ARABAN EUSKARA
MUGIMENDU ETENGABEAN
MAHASTI ARTEAN JAIOTAKO EKILOREAK
OIONEN DU BERE ETXEA

VIVE EL EUSKERA DE CERCA

EL EUSKERA
HUGUELA

UDAKO
EUSKARA IKASTAROAK

154376

154376

Egunean bi orduko ikastaroak - Cursos de 2 horas diarias
Bi orduko ikastaroak astean 3 egunetan
Cursos de 2 horas 3 días a la semana
Mintza taldeak
C2 ikastaroak
Online ikastaroak - Cursos online
<http://www.aek.eus/blogak/gasteizkoek/en/>

ZADORRA AEK (Iteabiztanra) Bontzeburua, 28 beheko 945 21 75 08 - 688 74 66 65 zadorra@aek.eus	AIXKIRIA AEK (Udameridi) Jose Iturrigarain, 8 beheko 945 26 35 40 - 688 74 64 66 aixkiria@aek.eus	ARANA AEK Añana, 30 beheko 945 25 24 00 - 688 74 64 63 arana@aek.eus
--	--	---

@gasteizkoek | @gasteizkonta

DIRU-LAGUNTZAK/BICAS

EUSKO JAURLARITZA: ARABAKO FORU ALDUNDIA GASTEIZKO UDALA
Mota egiaztatutako gero - Gobierno Vasco, erantsikonda un sivek. DIPUTACION FORAL DE ALAVA. AYUNTAMIENTO DE VITOLIA

Kaixo



"Euskara,
gure harrotasuna;
elkarrekin indartu"

AMURRIO
UDALA

AMURRIO
AYUNTAMIENTO



Araba Euskaraz irudietan

AURREKO EDIZIOETAN, JIAIAZ GOZATU ZUTEN EHUNKA ARABAR BILDU ZIREN ARABA EUSKARAZEN JAIAN

Irudiek asko transmititzen dute eta hitzekin baino hobeto komunikatzen da argazkiekin. Araba Euskaraz dibertimendu hutsa da, gazte eta helduen artean euskararen erabilera

bultzatzen duen jaiia. Lerro hauekin batera, irudiek aurreko edizioen dibertsioa erakusten dute. Dibertsioa, barreak, dantzak, jolasak, bazkarla... Araba Euskaraz eldunenak hainbat plan aurreikusten

ditu, ordutegi desberdinetan, familiek eta lagunek egun desberdin batez gozatzeko aukera izan dezaten, aisialdia funtsezkoa den giro eta ingurune ezin hobean. Jai honen helburua argia da: plan guz-

tiez gozatea eta euskararen erabilera ere aisialdira eramatea; euskarak Arabako lurralde historikoan indar handiagoa izan dezan borrokan jarraitzea eta gazteen eta helduen artean gero eta gehiago era-

biltzea. Urtez urte, Araba Euskaraz ekimenak ehunka arabar biltzen ditu, euskara hizkuntza nagusi dutela, aurten, Olarizuko zelaietan gozaten eta dibertitzen egongo direnak. ●


Euskaraz bizi,
Euskaraz erosi!

artepan

f @ #artepanvitoria artepan.com







Winnal

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Zurekin bat